

## KANALAK:

Gure kanala kanal propioa da, hau da, gure produktuak ohikoak diren denda fisikoetan saltzen ditugulako eta honetaz aparte baita ere online web gunearen bitartez saltzen ditugu. Kanal propioetan etekin-marjina handiagoa eskainiko dizkigute, baina horiek ezartzea eta kudeatzea konplexuagoa eta garestiagoa da.

Gure kanala zuzena da, gure produktuak online saltzen ditugulako, eta baita ere gure produktuak denda fisikoan saltzen ditugulako. Honen bitartez, bitartekariak izatea saihesten dugulako.

Komunikazio kanalai dagokionez, sarean webgune bat edukiko dugu, [www.munduko-bira.com](http://www.munduko-bira.com) izenekoa. Bezeroen zalantzetako baliagarri izango dena, hala nola, proiektuaren inguruko berrikuntzen berri eman eta laguntza eskaintzeko. Honez gain, enpresak telefono zenbaki bat eta posta elektronikoa izango du bezeroak gurekin harremanetan jarri ahal izateko.